



BERTSO SAIOA SANJOANETAN ESTREINAKOZ

Tolosako jaien berrikuntza bat da; Peñagarikano, Agirre, Irazu eta Zubeldia ariko dira etzi bertsotan, Zerkausian 3

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2008-06-21

VIURTEA 1.466.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Maixel Arrieta Villabonako alkatea, Marian Lazkano Zizurkilgo alkatea eta Patxi Altuna antolatzailea. I. GARCIA

GIPUZKOAKO TXIRRINDULARI ONENAK LEHIAN, BIHAR

TOLOSALDEA Atzo Zizurkilen aurkeztu zuten Emakumezkoen Gipuzkoako Txapelketa; 80 txirrindulari ariko dira lehian gurean 4

Sagastibeltza, 'Urrezko Sudurra' txapelketan

LEITZA Espainiako ardorik onenak aukeratuko dituzte gaur Madrilan eta bihar izanen da finala; bertan irabazlea aukeratuko dute 7

Batel estropaden probak izango dira bihar

TOLOSA Sanjoanetako egitarauaren baitan, neska-mutuez osaturiko 19 taldek hartuko dute parte; finala hilaren 24an izango da, Orian 4





**0 Km-aren
jaia**

*Eskaintza
hoberenak:*

- 0 Km-etan
- la berritan
- Direkzio
autoetan

6.500€tik aurrera

Giauto

Kontzesionario
ofizialak

GIAUTO OPEL
ELGOIBAR - EIBAR - BERGARA
ARRASATE - OLABERRIA - ANOETA
Tel. 903 343 123 Salmerik
Tel. 903 343 125 Salmerik
www.giauto.es
clientes@giauto.es

GIAUTO CHEVROLET
EIBAR - OLABERRIA
Tel. 903 343 225
www.red-chevrolet.com
clientes@giauto.es

GIAUTO SAAB
BERGARA
Tel. 943 703 347
www.giauto-redsaab.com
clientes@giauto.es

Batel estropaden sailkapen probak bihar Oria ibaian

Tolosa » 12:00etan hasiko dira estropadak; denbora onena egiten dutenek astearteko finalerako sailkatuko dira.

ERREDAKZIOA

Guztira 19 taldek hartuko dute parte aurtengo San Joan jaietako batel estropadetan. Talde hauek neskek, mutilek eta neska-mutilek osaturikoak dira. Bihar sailkapen probak izango dituzte, eta bertan ondoen aritzen direnek datorren asteartean izango dute hurrengo hitzordua final handian.

Biharko saioari dagokionez, 12:00etan ekingo diote arraunlariak. Promozioko batelak lehiatuko dira lehendabizi, hau da, TAK (mutilak) eta Emendek AKE (mutilak) eta Emendek AKE (neskak). Bigarren txandan mutilak ariko dira: Ibarra, Zelai, Izaskun AKE eta Izaskun AKE (mistoa), hain zuzen. Hirugarrenean ere mutilak ariko dira nor baino nor: Anoetako



Batel estropaden une bat, pasa den urtean. I. AZPIKUIETA

Arraunlariak, SMG-Orma, Boga eta Gaztelu. Laugarrenean ere mutilen arteko lehia izango da: K-2 taberna, Emendek AKE, Climax-ic eta TAK (mistoa). Azkenik nesken txanda izango da, Ibarra, Gure Txokoa, Txinparta eta Izaskun AKE lehiatuko direlarik.

Asteartean onenen lehia

Bihar denbora onena egiten dutenek asteartean izango den finaleko sailkatuko dira. Asteartean

promozioko baten ostean bihar mutilen kategorian denbora txarrena egiten dutenak ariko dira kontsolazio txandan, eta ondoren nesken finalak jokatu dituzte. Carlos Peña igerilariaren eta Jose Luis Korta arraunlariaren arteko desafio berezia etorriko da eta hau amaitu eta gero, azken finala izango da ikusgai, hau da, mutiletan sailkaturikoren arteko finala. Ikuskizun polita izango da, beraz, Zerkausiaren inguruan.

IX. Solstizio Kontzertua eskainiko du Et Incarnatus orkestrak bihar

Tolosa » Urkizun izango da, telekomunikazio antenaren azpian, 12:30etik aurrera; Migel Zeberio da zuzendaria.

ERREDAKZIOA

Et Incarnatus orkestrak udako solstizioa dela-eta bihar Urkizun, Mendikuteran magaleko belazean, Iraolako zuloa izeneko lekuan (telekomunikazio antenaren pean) IX. Solstizio Kontzertua eskainiko du, 12:30etik aurrera. Eguraldi txarra eginez gero, Urkizuko ermitan izango da saioa. Ohikoa den bezala emanaldiaren amaieran jatekoa eta edatekoa banatuko



Et Incarnatus orkestra Urkizun kontzertua eskaintzen. J. SAIZAR

dute bertaratzaren diren guztien tzat.

Emanaldi honetan lehen aldiz Laskorain abesbatzak eta Ereskitxo abesbatzak hartuko dute parte,

eta ohiko moduan, Migel Zeberio tolosarra izango da zuzendaria. Sortu berria den Alurtxiki elkarteak izan da biharko kontzertuaren laguntzailea.



Eguzki-erloju-egutegia berri dute

TOLOSA » Eskolapioetako lorategietan 1990. ean Ataurre SAK jarritako eguzki-erloju-egutegia garbitu eta berriro pintatu dute. Eguzki-erloju-egutegi bertikala da, mihizto edo gnomon horizontalekoa. Estetika dela eta, Hego-Ekialdera 20 graduz begira dago. Eguzkiaren eguneko higidurari esker, mihiztoaren muturraren itzalak ibilbide horizontala egingo du, denbora markak banan-banan zeharkatuz, era horretan erloju izaera hartzen duelarik; horregatik, ez du eguzkiaren ordua adierazten, ordu zibila baizik, hau da, erloju egiterakoan kontutan izan zen batetik, Tolosako longituda Greenwich meridianoarekiko (2 gradu Mendebaldera), eta estetika hemengo ordu zibila eguzkiarenaren aldean duen ordu bete aurrerapena. HITZA

Laburrak

Usabal kiroldegiko atzealdeko sarbidea itxita

TOLOSA » Usabal kiroldegitik azaldu dutenez, solarium berria egiteko obregatik, atzealdean dagoen ranpa, hau da, sarbidea tabernara duena, itxita egongo da. Lan hauek amaitu arte horrela mantendu beharko dutela adierazi dute bertako arduradunek.

Gizarte Zerbitzuetara joateko, izen-ematea

TOLOSA » Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako jendaurreko ordutegia ondorengo izango da: astelehenean, asteartean, asteazkenean eta ostiralean, 10:00etatik 13:00etara. Uztailaren 1etik aurrera, gizarte laguntzaileekin eta Felix Urrestarazurekin egoteko, beharrezkoa izango da aurretik ordua eskatzea. Horretarako, 943 69 74 60 telefono zenbakira deitu beharko da, edo bestela, aipaturiko ordutegian, Gizarte Zerbitzuetako bulegora joan eta han bertan eskatu.

Sukaldaritza aurreratuari buruzko ikastaroa abian

GIZARTEA » Tolosaldean ikastn zerbizuetarako, solarium berria jarriko du abian irailetik aurrera, sukaldaritza aurreratuarena, hain zuzen. Ikastaro honek plater landu/elaboratuak egiten ikasteko aukera eta elkagai ezberdinekin ohitzea eta trebatzea du helburu nagusia. Ikastaroa Villabonako Zumbeltz elkartearen eskainiko dute, Amasako Iturri-goxo jatetxeko sukaldariaren eskutik, Jokin Zabalenaren eskutik.

Kultur tailerkoen lanen erakusketa zabalik

TOLOSA » Herenegun erakusketa berria inauguratu zuten Aranburu jauregian, kultur tailerkoen arte-lanen erakusketa, hain zuzen ere. Erakusketa uztailaren 5era arte izango da ikusgai. 17:30etik 20:30era izango da ordutegia, jaiegun eta astelehenean izan ezik. San Joan egunean irekita egongo da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Estreinakoz bertso saioa izango da aurtengo jaietan



Ekitaldiaren aurkezpenaren, ezker-eskuin: Ainhoa Etxeberria, Zigor Leunda eta Iñaki Azaldegia. ESTI EZEIZA

Tolosa » Peñagarikano, Agirre, Irazu eta Zubeldia ariko dira bertsoan etzi, Zerkausian; gai-jartzaile Iker Iriarte ariko da.

ESTI EZEIZA

Aurtengo sanjoanetan, azken urteetan ez bezala, toki berezi bat egin zaio bertsoari. Izan ere, etzi, San Joan Bezperan, bertso saio paregabea izango da; eskualdeko lau bertsolari eta goierritar bat izango dira taula gainean, Iker Iriarte gai-jartzailearen aginduetara. Anjel Mari Peñagarikano, Jexux Mari Irazu, Amaia Agirre eta Iker Zubeldia izango dira saioiko

protagonistak. Ekitaldia 19:30ean hasiko da, eta aukeratutako plaza berriz, Zerkausia.

Ekitaldi honekin sanjoanetako egitarauaren ohikotasunetik atera nahi izan dute, eta «gure kulturaren horren garrantzitsua den bertsolari-ritza berriro indartu». Antolatzailearen esanetan, «euskararen erabilera areagotzeko bide egokia da bertsolari-ritza». Hori dela eta, ikasturte honetan zehar, hiriko hiru ikastetxeetan, *Ahozotasuna* eta *bertsolari-ritza* izenburupean, genero hau lantzen joan dira.

Orain, bertsoaren beste alderdi bat jorratu nahi dute, «eskoletatik atera, eta profesionalen mundua erakutsi nahi dugu orain». Ekimen hau, Tolosako Udalak eta Bertso-

zale Elkarteak elkarlanean garatu dute. Azken urteetan ikastetxeetan, hezkuntza arloan hainbat urrats eman dituzte eta orain bigarren pausoa izango litzateke jaialdia.

Bertso jaialdia, lehen pausoa

Duela urte batzuk, Pilarika inguruan bertso saio bat egin zen, baina ohitura hau galdu egin zen, eta 1996tik hona ez da egin. Baina orain, berreskuratu egingo dute, eta aurtengo urrian berriro ere egingo da jaialdia. Bestalde, datoren ikasturtera begira, bertso eskola bat eratzeke asmoa dute, eta horretan ari dira lanean, nahiz eta oraindik zehazteke egon proiektuaren xehetasunak.

Orfeoia, San Joan Suan

Tolosa » Bi urtetik behin hartzen du parte hilaren 23ko ekitaldi honetan, eta aurtun hor izango da, programa berezi batekin.

ERREDAKZIOA

Etzi, Tolosako Orfeoia San Joan suaren ondoan izango da ohiturari jarraituz, ekitaldia alaitzen. Hau Tolosako Andre Maria plazan izango da, 22:00etatik aurrera. Aurtun musika programa laburra baina «hunkigarria» eskainiko dute. Berrikuntza gisa, 750. urteurreneko Ereserki abestuko dute tolosarren laguntzarekin.

Hamar urte bete dira Leidor opera lehen aldiz eman zenetik Tolosan. Emanaldia Leidor Abesbatzak bultzatu eta antolatu zuen.



Leidor Opera, duela 10 urte. KUSK

Proiektua aurrera eramateko abesbatza indartsu bat behar zen eta jende falta zegoenez, egoera horren jakitun egin zituzten herriko abesbatza talde guztietako kantariak. Horrela, ekimen hartan To-

losako Eresoinka Abesbatza eta Abeslari Lagunak koruetako kideek parte hartu zuten Donostiako Mariaren Bihotza taldeko eta Baionako Errobi abesbatzako kantariekin batera

Urte hartan ere, Leidor Abesbatzak San Joan Suaren ekitaldian abestu behar izan zuen, eta operako abesbatzak ere ekitaldi horretan kantatzearen ideia kaleratu zuten. Ekitaldi hori eta jendearen arteko harremanak pizgarri izan eta bultzatzaile izan ziren Tolosan musika elkarte berri bat sortzeko. Honela, 1998ko urrian eratu zen eta bere lehendabiziko kontzertua 1998ko urriaren 26an eman zuen San Frantzisko elizan. Bestalde, urte horretako sanjoanek, 1998koek, Tolosako Orfeoian historian bere lehena eta bere geroa bereiztu zituen.

Autobus zerbitzu bereziak sanjoanetan

Tolosa » Hiribusak ordutegi desberdina izango du, honez gain, gaur eta astelehenean gaueko zerbitzuak izango dira.

ERREDAKZIOA

Sanjoanek direla-eta hiribusak zerbitzu bereziak eskainiko ditu, jendeak autoa hartu beharrik izan ez dezan. Hiri barruan gauzatuko diren ibilbideez gain, eskualdeko herrietara ere aterako da autobusa.

Bihar eta San Joan Egunean, hiribusaren ordutegia hau izango da. Goizez 10:00etatik 14:30era eta

arratsaldetan, 17:30etik 21:30era. Bestalde, gaueko zerbitzuei dagokionean 00:00etan, 02:00etan eta 03:30ean autobus bat irtengo da San Frantzisko elizaren aurretik, gaur eta San Joan bezperan. Honek geldialdiak egingo ditu Iurren, Amarozen, Alegian, Amezketan eta Ikaztegietan. Honez gain beste autobus bat ere egongo da. Hau 01:00etan, 02:45ean eta 04:15ean irtengo da San Frantziskotik. Honek ere geldialdiak egingo ditu. Lehena Iurren, gero Amarozen. Hemendik Ibarra joango da, eta Berrobi, Eldua eta Elduain zeharkatu ditu, Berastegira iritsi arte.

San Joan bezperan denda batzuk itxita

Tolosa » Igarondo elkartekoez erabaki dute janari dendak bakarrik irekitzea goizean, eta arratsaldean, denak itxita.

ERREDAKZIOA

San Joan jaiak direla eta, Igarondo merkatarien elkartekoez, beraien denden atea ireki behar dituzten edo ez erabakitzeke, hainbat kideen iritziak bildu dituzte. Honen ostean, Zuzendaritzak erabaki du, bertako kide diren janari dendak goizean bakarrik zabaltea ekai-

naren 23an. Egun horretan bertan, arratsaldean berriz, denda guztiak egongo dira itxita.

Ekainaren 25ari dagokionean berriz, ez dago inongo jai ekitaldirik programatuta. Hori dela eta, egun guztian zehar egongo dira saltokiak irekita.

Dendarientzako oharra

Tolosako denda batean gertatu den azken lapurreta eta gero, merkatariei, beraien dendetan behar diren segurtasun neurriak hartzeko gogorarazten diete elkarteko ordezkariak. Berriro horrelako ezer gertatu ez dadin.



Euskal Tonbolaren saria Lizartzara

LIZARTZA » Euskal Tonbolaren 42 hazbeteko telebista irabazi du Lizartzako Hermenegildo Irazuk. Atzo jaso zuen saria, eta gustura agertu zen eramandakoarekin. Lizartzarrak azaldutakoaren arabera, behin baino gehiagotan erosten zituen txartelak Ostatu jatetxean, baina azken honetan ez zuen asmorik, «tabernariak behin eta berriro esan zidalako erosi nuen» zioen berak. Saritua izan zela jakin zuenean, tramankuluarentzako toki bila hasi zen egongelan, «ez baita brometako aparatua». ESTI EZEIZA

Gipuzkoako txirrindulari onenak lehia eskualdean

Txirrindularitza »

Emakumezkoen Gipuzkoako Txapelketa jokoa, 80 txirrindulari ariko dira lehia bihar.

IMANOL GARCIA

80 txirrindulari inguruk parte hartuko dute igandean Emakumezkoen Gipuzkoako Txirrindulari Txapelketa. Neska Txirrindularien Zizurkilgo IV. Sari Nagusia izango da eta Euskaldun Txapelketarako puntuagarria izango da ere. Urkamendi eta Irintzi elkarrekin antolatzen dute eta Zizurkilgo Udalak zein Villabonako Udalak lagundu dute.

Atzo egin zuten probaren aurkezpen ekitaldia Patxi Altuna antolatzaileak, Marian Lazkano Zizurkilgo alkateak eta Maixabel Arrieta Villabonako alkateak. Aurten ibilbidea aldatu egin dute, N-1 errepidean ez zutelako nahi erabi-



Patxi Altuna, Marian Lazkano eta Maixabel Arrieta, aurkezpenean. I. GARCIA

li. Horrela, Andoain alderaino joango dira Xoxola mendatea igoz. «Ondo prestatutako ibilbidea da», azaldu du Altunak, «eta segurtasunari garrantzi handia emanez».

Eskualdetik, Tolosa CF

Hamalau talde ariko dira lehia eta eskualdetik Tolosa CF taldea ariko da. Eskualdeko beste zenbat

txirrindulari ere ariko dira beste taldeetan lehiatzen. 10:00etan emango diote hasiera probari. Kadeteek 11:00ak aldera amaituko dutela aurreikusten dute, juniorrek 12:00ak aldera eta elitekoek 12:45ak aldera. Helmuga Zizurkilgo egongo da, Pasuseneko biribilgunetik 100 metro ingurura Astesura bidean.

Etorkizuneko txirrindulariak lehia

ANOETA • Jubenil mailako Gipuzkoako Itzulari hasiera eman zioten atzo Anoetan, aitzin etaparekin. Mikel Oiarzabalena eta Andoni Urkolaren omez egin da proba. 150 txirrindulari aritu ziren lehia erlojuaren aurkako 1,7 kilometroko ibilbidea eginez. Beste hiru etapa izango dituzte txirrindulariek. Gaur Olaberria-Olaberria egingo dute, bihar Andoain-Andoain eta azkenekoa etzi izango da: Segura-Segura. Gipuzkoako jubenil mailako onenak ari dira lehia. I. GARCIA



Ikasturteari agur esateko festa

ALKIZA • Ikasturte amaierako festa egin zuten atzo Alkizako eskolan. Guraso, ikasle eta irakasleen arteko bazkariaren ondoren, haurrek antzezlanak egin zituzten Kultur Etxean. I. GARCIA

Euskal festa antolatu dute gaur, Benta Aldean



Joakin Garmendia bere idi pareekin. HITZA

ERREDAKZIOA

Urtero legez, aurten ere euskal festa antolatu dute Anoetako Bodegon Benta Aldea jatetxearen ondoren. Gaur izango dira emanaldiak. 12:30ean Joakin Garmendiaren idi pareak erakustaldia egingo dute. Ondoren, 13:00etan, aizkolarien

erakustaldia izango da. Bertan Mendizabal, Larretxea, Olasagasti, Arrospide, Aierbe, Arria eta Lopez ariko dira. Tarteen Joakin Garmendiak kanako egurra ebakiko du.

Aizkolarien erakustaldia eta gero, harri-jasotzaileak izango dira. Goenatxo eta Betelu ariko dira. Hain justu, Diva pentsu etxek 1.000 kilo baba emango dizkio doan Betelu harri-jasotzaileari hamalau arroakoa jasotzen badu. Herri kirolerako erakustaldi guztiak amaitzean, bazkaria izango da Bodegon benta aldea jatetxean.

Sanjoanetako bertso saioa

Bertsolariak:
Anjel Mari Peñagarikano, Amaia Agirre, Jexux Mari Irazu eta Iker Zubeldia.
Gai-jartzaileak:
Iker Iriarte.

Antolatzailea: Euskara batzordea.

Ekainak 23, astelehena • 19:30ean
Tolosako Zerkausian Sarrera doan

OSPA ITZAZU SAN JOAN JAIK BENETAKO ERREGE-OPILAK DASTATUZ. EKAINAREN 21 ETA 22AN SOILIK.
Plaza zaharra, 7 • TOLOSA
Tel.: 943670727

txokoa

2 zerbitzu oso

zozketan deitu eta eskuratu

kolorea, diztira, forma, mozketa, orrazkera eta ilerako tratamendurako produktua.

HITZAren harpidedunentzat abantailak Parte hartzeko, deitu goizez telefono zenbaki honetara: **943 65 56 95**

ESTILISTAK
honekin

www.honekin.com
honekin@honekin.com
943 67 22 44
Santa Maria plaza 1 • TOLOSA

Laburrak

Ezker abertzaleak batzarra egingo du gaur udaletxean

ANOETA • Anoetako ezker abertzaleak deituta, batzarra egingo dute gaur 11:00etan udaletxean. Bertan jorratuko dituzten gaiak ondorengoak izango dira: azken urteko balantzea, aurrera begirako erronkak eta egitasmoak eta ekarpenak jasotzea.

Herri antzerkiak eta dantza sokaz bilera, asteazkenean

ANOETA • Hilaren 25ean bilera egingo dute udaletxean herri antzerkiak eta dantza soka egunaz hausnarketa egiteko, datorren urteari begira. Dei egiten diete herriko taldeei eta interesaturik dagoen herritar orori bileran parte hartzea. 19:00etan izango da, udal areto nagusian.

Haritz Iglesias, Bai Euskal Herriariren porran irabazle

VILLABONA • Villabonako Bai Euskal Herriari herri ekimenak eskuz banakako pilota finalerako antolatu zuen porrak badu irabazlea: Haritz Iglesias tolosarra. 200 apustu inguru egin ziren eta apustuan jarritako diruaren erdia jasoko du irabazleak. Bide batez, herri ekimenak eskerrak eman nahi ditu parte hartu zuten guztiei.

Oinkari dantza taldeko gaztetxoak Lezon, gaur

VILLABONA • Oinkari Dantza Taldeko gaztetxoak *Iraganaren geroa* ikuskizunaren aurkezpenekin buru belarri zentratuak daude. Aurreko astean Villabonan buruturiko estreneuak segida izango du gaur ilunabarrean. Izan ere, Lezoko Bekoerrota kiroldegian izango da ikusgai emanaldia 20:00etan. Bertan tradizioa eta koreografia berriak uztartuko dira. Zuzeneko doinua jartzeaz Villabonako Loatzo musika eskola arduratuko da.

Hutsunea Betez-ek irteera antolatu du hilaren 29rako

VILLABONA • Hutsunea Betez elkar-teak familia giroan egiteko egun guztirako irteera antolatu du hilaren 29rako. Gaztelugatxe, Gernika eta Bermeo ikusiko dituzte. Elkar-teko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte, bazkide ez direnek 15 euro eta 14 urte azpikoek 5 euro. Azken hauek heldu batez lagunduta joan beharko dute. Bakoi-tzak bere bazkaria eman beharko du. 09:00etan aterako dira Oladerra kiroldegi ondotik eta antolatzailleek puntualitatea eskatu dute. 20:00ak edo 20:30ak aldera Villabonan egongo direla aurreikus-tzen dute. Izena emateko Kutxako 2101 0095 56 0133586016 kontu korrantean dirua sartu behar da, izena jarritz. Informazio gehiagora-ko 943 69 05 24 edo 943 69 10 56 zenbakietara dei daiteke.

Kontzertua Oroith Abesbatzarekin

Villabona • Ordiziarrek Nazioarteko Lehiaketa baterako prestatu dituen abestiak kantatuko dituzte.

ERREDAKZIOA

Ordiziako Oroith Abesbatzak Villabonako eliz parrokiaren emanaldi bat emango du gaur 19:45ean. Da-

torren uztailean talde ordiziarrek Austriako Spittal an der Drau-en ospatuko den Nazioarteko Lehiaketa parte hartuko du eta gaur bertara eramango duen egitaraua entzuteko parada izango da.

Oroith Abesbatzako zuzendari den Katrin Iturralkdek azaldu duenez, denetarik duen programa dela azaltzen du. Polifoniatik hasita, berpizkunde eta erromantizis-



Oroith Abesbatzaren partaideak. HITZA

mo garaietako musikatik garai-kundekora.


Josquin de Prez, Monteverdi, Mendessohn, Sisask eta Resch musikarien obrak abestuko dituzte. Oso estilo eta garai ezberdinetan.

ko konposatzaile ezagun hauen obretan abesbatzak bere erregistro ezberdinak adierazi beharko ditu. Euskal folkloreak abestiak ere kantatuko dituzte kontzertuan.

Are eta elkartasun handiagoa,
orain bai.

2007/2011 Kudeaketa Plana

efektogipuzkoa



GIPUZKOA
aurrekin, aurrera >



Aimar Irigoienen bisita

ABALTZISKETA ● Herriko eskolan atzokoan festa giroa izan zen nagusi, ikasturte amaiera festa izan baitzuten. Hala, bazkalostean, dantzarako tartea izan zuten, trikixita doi-

nuak entzungai zirela. Ondoren, sorpresa jaso zuten gaztetxoek, Aimar Irigoien harriz jasozailea joan baitzuten, eta opari eta guzti, gainera. i.r.



Ikasturte amaieran pozik

AMEZKETA ● Zumadi eskolako ikasturte bukaerako jaia izan zuten atzo, eskolako frontoian. Maila desberdinetan banaturik ikasleek ikuskizun dotorea eskaini zuten:

abestiak, dantzak, antzerkiak... Ondoren, guraso elkarteak prestatutako askaria hartzeko aukera izan zuten denek. Giro polita izan zuten nagusi. i.r.

G Gutunak

San Joan jaien atarian, adierazpena

2008ko San Joan jaien atarian, ezker abertzaleko udal taldearen adierazpena:

2003, 2004, 2005... Badira urte batzuk gure herriko jaien atarian ezker abertzaleko hautetsiok antzeko adierazpena plazaratzen dugula, herriaren zati haundi baten bazterketa eta Udalaren izaera ez demokratikoa salatuz alde batetik, eta herritarrek jaietan parte hartzerako gonbidatuz, bestetik. Urte luzeak inondik, harrokeriaz beteriko udalagintariaren mespretxua jasaten. Baina ez dugu etsitzeko asmorik!

Aurten ere, herriko jaiak garrantzitsuak izan zuten udal talde politikoen urte osoan herri honen laurdenaren ordezkario egindako bazterketaren eta irainaren irudi eta adierazle bilakatuko dira. Batzuk, handikeriaren jantzia soinean, ezingo dute euren ardura ezkatuta. Besteok, duintasunaren pankarta eskuetan, herritarrek emandako ordezkariak aldarrikatuko dugu.

Noiz arte jasan behar dugu egoera hau?

Aurten ere, tolosar guztiak San Joan jaietan parte hartzerako gonbidatu nahi ditugu, hargatik gure herriarentzat demokrazia eta askatasuna aldarrikatzeari uko egin gabe. Horretarako aukera izango dugu ekainaren 23an, arratsaldeko zazpitan, Arramele zubian *Tolosan Demokrazia Zero*. *Lapurrrak dimittitu* lelopean egingo dugun elkarretaratzean.

Amaitzeko, ezin ahaztu Euskal Herriaren alde egiteagatik jaietan izango ez diren tolosarrak. Aurten bereziki, Pello Odriozola dugu gogoan. Aurtengo uztailearen 2an beharko luke kalean zigorra beteta. Baina Estatu espainolarren mendeku politikak beste 10 urtetan bahitua egotera zigortu du. Ea guztion bultzadaz datoren urteko San Joan jaietan Pello gurekin egotea lortzen dugun.

Gora San Joan jaiak! Pello, maite zaitugu!

Antton Izagirre, Eider Elduaian, Hektor Espin eta Silvana Ostiza. (Ezker Abertzaleko Tolosako hautetsiak). Tolosa

L Laburrak

Jubilatuen Festan izena emateko aukera

TOLOSA ● Jubilatuen Festa antolatuta dute uztailearen 6rako. Bertan parte hartu nahi dutenek izena emateko aukera dute Harizpe edota Iturrizta jubilatu elkarteetan. 65 urte izan eta Tolosan bizi direnentzat zuzenduriko festa da.

Bizikleta Festan izena emateko hainbat bide

TOLOSA ● Hilaren 28an 16:30etik aurrera Bizikleta festa izango da Zerkausiko goiko solairuan Kilometroak 08ren alde. Izen-ematea, www.kilometroak.net, egunean bertan, kmk.ikuskizunak@ikastola.net edo 688658004 zenbakian.



Udako Festa Haur Liburutegian

TOLOSA ● Haur Liburutegian Udako Festaz gozatzeko aukera izan zuten atzo etxeko txikienek. 1, 2, 3... *lñaxito* antzezlan izan zuten ikusgai, eta txokolatea ere izan zen nahi zuen ororentzat. Bestalde, hilaren 25etik irailaren 5 arte haur liburutegia goizez irekiko dute, 10:00etatik 14:00etara, eta uda osoan kaleko haur liburutegi zerbitzua eskainiko dute, sarrerako terrazan eta lorategietan. Mahai-jokoak ere izango dira. E.EZIZA

TTT-Iparkaleko triatloilariak zazpigarren geratu dira Euskadikoan

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Triatloi Taldea-Iparkal taldea zazpigarren geratu da Euskadikoan, aurreko asteburuan Zarauzko nazioarteko triatloian. Aldi berean euskadiko distantzia luzeko txapelketarako proba ere izan zen. 446 partaide eta 40 talde izan ziren eta TTT-Iparkalekoak 9. iritsi ziren, eta postu horrek euskadiko 7. izatea bideratu zuen. Emaizta oso ona, eta gainera parte hartu zuten 14 taldekideek amaitu zuten proba. Hurrengo proba Donostian eta Zumaian izango dituzte distantzia olinpikoan.

ARAMBURU
Salgai (Alkiza). Etxe handia lursailarekin. 4.000m². guztiz eraberritua.
Salgai (Tolosa).
Etxebizitza. Soldadu kalean. sartzeko moduan. (231.400€ / 38.500.000 pnta)
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Nagusia kalean. 1. Igoailiarekin sartzeko moduan eta bestea eraberritzeko eta igogailurik gabe. (193.000€ / 32.000.000 pnta negoziagarriak)
Salgai (Tolosa).
Etxebizitza. Martín Jose Iraola kalean.
Salgai (Ibarra). Etxebizitza. San Ignazio auzoan. sartzeko moduan. (211.000€ / 35.000.000 pnta)
Salgai (Tolosa). Izaskun auzoan. (234.400€ / 39.000.000 pnta)
Salgai (Villabona). Etxebizitza. guztiz eraberritua. Amasan.
Salgai (Legorreta). Etxebizitza eraberritzeko.
Salgai (Ibarra).
Lokala. Euskal Herria kalean.
Salgai. Garajeak. San Frantzisko eta Ametotzen (Tolosa) eta Idoagian (Ibarra).
Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdigunean.
Alokatzeko (Tolosa). Etxebizitza, lurre auzoan eta San Frantziskon.
Alokatzeko (Tolosa).
Garajeak. San Frantzisko, Araba etorbidean eta Batxilerr Zaldibian.
Alokatzeko (Ibarra).
Pabilloi industriala. Leaburuko bidean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Arantxa Sagastibeltza, 'Urrezko Sudurra' txapelketan

Leitza » Gaur Espainiako ardorik onenak aukeratuko dituzte eta bihar izanen da finala, bertatik irabazlea aterako delarik.

NAIARA GARZIA

Arantxa Sagastibeltzak asteburu honetan Urrezko Sudurra txapelketan hartuko du parte, Madrilén. Txapelketa bi egunetan zehar egingen da, gaur eta bihar.

Espainiako parte-hartzaileak joanen dira eta 80 pertsona inguruk hartuko dute parte lehiaketan. «Euskal Herriatik 17 goaz», dio Sagastibeltzak.

Finala

«Gaur ardoak katatuko ditugu, eta hortik Espainiako ardorik hobereak aterako dira, jasotzen duten puntuazioaren arabera». Hau, be-

raz, jardunaldi hauen lehenengo zatia izanen da, baina ez da gaur txapelketa honen irabazlea erabakiko, bihar arratsaldean baizik. Txapelketa aurreko kanporaketan izan zen antzekoa izanen da. «Bi proba egin beharko ditugu, bat ardoena eta bestea likoreena. «Lehenengo ardoaren proba egingen dugu. Ardo ezberdinen inguruko azalpenak entzungo ditugu, eta gero kopa beltza batean ardo horietako bat jarriko digute eta zein den asmatu beharko dugu. Likoreena berriz, ez dakit ziur nola izanen den, ez baitigute aurretik ezer azaldu».

Irabazleak dirua jasoko du. «Diruaz gain txapelketa irabazteak ate asko irekitzen dizkizu, lana egiteko orduan», dio Sagastibeltzak. «Ni probatzera noa, ez noa irabazteko asmoarekin. Oso zaila da. Maila oso altua dago. Badago jendea urte asko daramatzana ikas-



Arantxa Sagastibeltza sommelieria, finalerako sailkatu baino lehen. UR ALGUERO

ten, eta badago jendea lanik egingen ez duena, horretarako soilik presatzen dena. Ez da erraza izanen».

Puntu ezberdinetatik joandako sommelier guztiek hotel batean egingen dute lo. Euskal Herriatik gaur goizean abiatu eta bihar itzuliko dira.

Finalaurrekoa, Gasteizen

Arantxa Sagastibeltza joan den azaroan sailkatu zen finalerako. Gasteizen egin zuten finalaurrekoan. Saio honetan Espainiako iparraldeko (Kantabria eta Asturias) probintzietako sommelierrekin batera lehiatu zen leitza, baina Eusko Autonomia Erkidego-koekin ere. Bertan, 80 pertsonek hartu zuten parte eta hauetatik 17 sailkatu ziren. Asmatu beharreko ardo, errioxako Azpilikueta bodegetako ardo bat zen, %60 tempranillo zuena eta eta %40a garnatxa. Honetaz gain, parte-hartzaileek egindako hautaketa batean, ardorik hobereak aukeratu zituzten Gasteizen eta hauek ere bihar Madrilén izanen dira.

Azaroan 26an egin zuten Gasteizen estatuko iparraldeko kanporaketa eta hilabete hauetan zehar estatuko beste zenbait lekutan finalaurrekoak egin dituzte. Guztietan sailkatu diren sommelierren artean izanen da lehia atzerri honetan eta irabazlea Urrezko sudurra izendatuko dute.

Areso ere Uemako kide da eta jada 52 dira

Areso » Larunbatean sartu zen Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean, eta eskualdean jada 15 herri dira Uemako kide.

N. GARZIA

Joan den larunbatean Azpeitian ospatutako Uema egunean (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) Areso Uemako partaide izatea onartu zuten, goizean egindako bilera batean. Aresoaz gain, beste 5 herri ere larunbatetik aurrera Uemako kide dira: Azpeitia, Ezkio-Itsaso (Gipuzkoa), Atxondo, Mallabia eta Otxandio (Bizkaia).

Mikel Baraibar Aresoko alkateak azaldu duenez, «duela hilabete inguru erabaki genuen Ueman sartzea. Bilera izan genuen bertako arduradunekin eta hor sartzea erabaki genuen, gehienbat udal-axeak euskaraz funtzionatzeko. Guk osoko bilkura batean hartu genuen erabakia, eta larunbatean kide bezala onartu gintuzten, goizean egin zuten bilera batean».

Bilera Azpeitian egin zen, Uema eguna ospatzen zen egun berean. «Bilera horretan Uemako ordezkariak zeuden, eta Uemako kide diren herrietako ordezkariak ere gonbidatuak zeuden, denak joan ez ziren arren. Uemaren funtzio-



Udaletxean egindako osoko bilkura batean erabaki zuten eskaera egitea...A.

namendua hori da eta orain gu kide bat gehiago gara».

Baraibarren ustez Areso Uemaren kide izatea «onuragarria» da. «Gu Ueman sartu gara laguntza bat izateko gure dokumentuak eta funtzionamendu guztia euskaraz izateko. Haiek laguntza ematen dizute, eta diagnosi bat egingen dute udaletxean euskara zerbitzua bermatzeko zer behar dauden ikusteko. Azken batean ematen diren urratsen helburua udaletxearen barruan euskara bermatzeko jarri ta daude».

Uema eguna izanik, jaialdia egin zuten egun osoan zehar: herri kirolak, bazkaria, jokoak... «Goizean bilera egin ondoren, harrera instituzional xume bat egin ziguten

Ueman sartu berri garen 6 kide berriei».

Gaur egun 52 herri dira Uemako kide, Areso gehituta, eskualdean, 15: Leitza, Aduna, Elduain, Irura, Anoeta, Belauntza, Leaburu-Txarama, Altzo, Oresa, Lizartza, Alegia, Baliarrain, Orendain eta Ikaztegieta.

» UEMA

■ **Eskualdean.** Leitza, Aduna, Elduain, Irura, Anoeta, Belauntza, Leaburu-Txarama, Altzo, Oresa, Lizartza, Alegia, Baliarrain, Orendain eta Ikaztegieta eta Areso.

■ **Euskal Herrian.** 52 herri dira Uemako kide Euskal Herrian.

ZERBITZU BULEGOA
AIXA

Nominak - Kontabilitateak
Zergak - Autonomoak

Pablo Gorosabel, 4 - 1. esk
TOLOSA
Tel.: 943 65 03 03
Faxa.: 943 65 22 22
mjhuarte@euskalnet.net



OKINDEGLIA
kixubi
Gozotegia eta kafetegia

Erniobeaa, 3
Billabona

Etorri
eta dasta
itzazu!

Ogi beroa eta aukera zabala
produktu berrieekin!



23°
18°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 20°
HOTZENA 15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Alegia.** Intxurre pilota eskolako denboraldi amaieran afaria egingo dute uztailearen 3an. Afarien etortzeko pilota eskolako Alegiako Kultur eta Kirol Etxean eman behar dute izena.
■ **Anoeta.** Ezker abertzaleak deituta, batzarra izango da 11:00etan udaletxean. Gaiak: urtebeteko balantzea; aurrera begirako egitasmoak eta ekarpenak jasotzea.
■ **Anoeta.** Udaleku irekiak izango dira LH1 eta 6 bitartekoentzat, hilarren 23tik uztailearen 8ra, eta uztailearen 9tik 24ra, asteleheneetik ostiralera, 09:30etik 13:30era. Izen-ematea, udaletxean.
■ **Hernalde.** Kultur Asteburuaren baitan, asto jatea frontoian 14:00etan, trikitilariak alaituta, Kultur Astearen barruan.
■ **Villabona.** Kaxkagor elkarteak Hernaniko Aquaparkera egun pasa antolatu du Aiztondoko 12 eta 16 urte arteko gazteentzat hilarren 21ean. Izena ematea derrigorrezkoa da eta kaxkagor@hotmail.com helbidean edo 677 48 89 10 edo 636 63 86 35 zenbakietan egin daiteke.
■ **Zizurkil.** Ekua-voley partidak Otaño ikastetxean 11:00etan eta Ekuadorreko janariaren dastatzea Atxulondo kultur etxean 13:00etan.

Kirolak

■ **Tolosa.** Ekainaren 28an, 16:30etik aurrera Spinning festa izango da Zerkausiko goiko solairuan Kilometroak 08ren alde. Izen-ematea, www.kilometroak.net, eguneari bertan, kmk.ikuskitzunak@ikastola.net edo 688 658004 telefonoan.

Musika

■ **Villabona.** Ordiziako Oroith Abesbatzak kontzertua eskainiko du Bihotz Sakratuaren elizan 19:45ean.

Erakusketak

■ **Alegia.** Jubilatuen tabernan Noelia Crujeirasen margolan abstraktoak izango dira ikusgai hilabete osoan zehar. Asteartetik igandera bitarte.
■ **Tolosa.** Myriam Orkoien ibartarrak olio-pinturak eta akriliko abstraktoak ditu ikusgai Fronton kafe-tegian.
■ **Tolosa.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren zeramika lanak daude ikusgai Lanbroa tabernan, hilaren bukaerara arte.

Jaiak

■ **Belauntza.** San Joan jaien hasiera etxafuegoekin eta 21:00etan herri afaria prestatuko da Pagadi osaba-ilobak trikitilariekin.
■ **Abaltzisketa.** 15:30ean, VI. Mus Txapelketa Larrunarri elkartearen 21:00etan, sagardo dastaketa herriko plazan. Jarraian, txerri harripaketa herriko pilotalekuan. Ondoren, kontzertua Kupelarekin.

■ **Tolosa.** San Joan azoka berezia goiz guztian zehar; 10:00etatik aurrera zesta punta eta igeriketa; 10:30ean entzierra; 12:00etan esuziria; 16:00etan txirindulariak; 18:00etan haur ikuskizuna; 18:00etatik aurrera tenisa; 18:00etan zezen-errekortariak eta eskubaloia; 18:30ean sagardoa, Oria eta Mulanbo. 11:30ean hasiera Plaza Zaharrean; egun osoan jo-

koak, txiste, irrintzi eta bertso lehiaketak, kalejira, dantzaldia, txaranga eta dultzaineroak; 14:30etik aurrera Ferialekuan Kodrila Eguneko bazkaria; ondoren Unsain anaiak, Xanpetiki-dantza eta Larrain-dantza. 22:30ean Euskal Herria plazan Oskorri eta Tolosako Musika Banda; 23:00etan Plaza Berrian Angelais eta Ortoponhonk musika taldeen emanaldia,

ondoren Parrucho DJ-aren emanaldian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanena eta iritzien erantzunik.

argiketariak & igeltseroak
iturkinak & pintoreak
arotzak

eskaiolista & dekoratzaileak
zoruak & leihoak
altzariak & sukaldeak

eta orain
VARIÉ by STOKKEko
eserlekuak saltzen ditugu

gremioen koordinazioa
Sanjoanak ondo pasa!

Nafarroa etorb. 12 • Tolosa
Tel.: 943 65 36 40

aldama_tapia
aholkulariak

Tel.: 943 65 03 75
Faxa: 943 65 52 06

Foruen Etorbidea_7 • 20400_TOLOSA_Gipuzkoa
gtolosa@aldamatapia.com • www.aldamatapia.com

Zuri arrain

iturgintza & bainugelak

IKASTARO TRINKOAK

INGELESA - FRANTSESA
ALEMANA - ITALIERA
TXINERA

elduainen
hizkuntza eskola

UDARA
UZTAILA-ABUZTUA
Egunero ordubete, bi edo hiru ordukoak

MATRIKULA IREKITA DAGO

(Sn.Sn. Ondarreta)

DONOSTIA: Infanta Cristina Etorbidea 15, Itxas-Lore etxea, Ondarreta - Tel/Fax: 943 31 07 53 - 943 31 37 90 - **INTXAURROND**: Pedro Axular 4, Behea - Tel/Fax: 943 27 24 63 - **TOLOSA**: Martin Jose Iraola 8, 3-Ezk. Tel/Fax: 943 67 00 52 - 943 67 12 75 / Kondeaneko Aldapa, 30 - Tel/Fax: 943 67 47 33 / Nafarroa Etorbidea 12 entlo. Tel/Fax: 943 67 00 52 - 943 67 12 75 - **LASARTE**: Pablo Mutiozabal 2, 1. solairua - Tel/Fax: 943 37 27 81 - **URNIETA**: Dendaldeg, 6 Behea - Tel/Fax: 943 55 58 58 - **VILLABONA**: Kale Berria 46, 2-B - Tel/Fax: 943 69 63 73 - **ALEGIA**: San Juan 46 - Tel/Fax: 943 65 57 26

SANJOANAK 2008

Tolosako ZEZEN-PLAZA

21 EKAINAK 18:00etan
ZEZEN ERREKORTARIEN 3. LEHIAKETA
GAUR EGUNEKO ESPEZIALISTA
HOBERENEKIN 1. FINAL ERDIA

24 EKAINAK 18:00etan
JUAN PEDRO OLMOS ZALDUEN APARTAREN BEREKIZIKO FLAMENKO-ZALDI IKUSKIZUNA
PUREZA Y DUENDE

22 EKAINAK 18:00
ZEZEN ZALEEN BILKURA
ZEZENKETA "ALCURRECEN"
6 ZEZEN Gureko Zezenak
TOKIADORRENTZAT

JAVIER CONDE
JUAN BAUTISTA
IVAN FANDIÑO

TOKIADARAKI GUTZIAZ BEREIN PAKADORI ETXAN BARRERIKO TALDEAREN ARNO DIBA